28 APARKALEKU

Santa Isabel plaza



Azalera-eskubidea eskuratzeko prozedura

Arrigorriagako Udalak SantaIsabelplazako28aparkalekuren azalera-eskubidea eskuratzeko aukera eskaintzen du, lagapena formalizatzen denetik 40 urterako.

Nork har dezake parte?

Adinez nagusiaden, Arrigorriaganerroldatuta dagoen eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituen edozein pertsonak.

Prezioa eta bermea

11.500 € - 13.000€
Gehi % 21eko BEZa.
Behin-behineko bermea: 300 €.

Bermea adjudikazioaren ondoren itzuliko da, adjudikatutako aparkalekuaren azalera-eskubidea eskuratzeari uko egiten zaionean izan ezik.

Kontuan hartu

• Pertsona bakoitzakeskaintza bakarra aurkez dezake.

• Aparkalekuek ez dute babes publikoko araubiderik.
• Baldintza guztiak ezagutzeko, kontsultatu administrazio-baldintzen agiriak.

Zer dokumentazio aurkeztu behar da?

Kanpoko gutun-azal itxi baten barruan, beste bi gutun-azal aurkeztu behar dira:

1 gutun-azala. Eskabidea

• Eskabidea beteta (V. eranskina).
• NANaren edo agiri baliokidearen kopia.
• Erantzukizunpeko adierazpena (IV. eranskina).
• Helbide elektronikoa eta harremanetarako telefonoa (V. eranskina).
• Bermea itzultzeko banku-kontuaren zenbakia (V. eranskina).
• 300 €-ko bermea jarri izanaren egiaztagiria.

2 gutun-azala. Eskaintza ekonomikoa

• Proposamen ekonomikoa sinatuta (VI. eranskina).
• Hala badagokio, udalerrian garaje-plazarik jabetzan ez izatearen erantzukizunpeko adierazpena, VII. eranskineko baldintzen arabera.
Garrantzitsua: gutun-azalek itxita egon behar dute. Orri guztiak zenbakitu behar dira, bakoitzaren zenbakia eta guztizko orri kopurua adierazita. Kanpoko gutun-azalean administrazio-baldintzen agirietan zehaztutako inskripzioa jarri behar da.

Non aurkeztu daiteke?

1 Aurrez aurre, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuetan (HAZ)

Abusu: Olatxu kalea 4.
Herrigunea: Urgoiti pasealekua 57.

2 Beste erregistro ofizial batzuetan

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitakoetan, pleguetako baldintzak betez. Aurkeztu izana Udalari jakinarazi behar zaio ezarritako epean, Udalari zuzendutako komunikazio baten bidez edo helbide honetan:
kontratazioa@arrigorriaga.eus
Jakinarazpenik gabe, eskaintza ez da onartuko. Aurkezteko epea amaitu eta hurrengo hamar egun naturaletan jasotzen ez diren proposamenak ere ez dira onartuko.

3 Udalaren egoitza elektronikoan

https://arrigorriaga.egoitzaelektronikoa.eus/
Izapidearen izena: **Santa Isabel lursailen lehiaketaren dokumentazioa aurkeztea**

4 Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman

https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

Zein da eskaintzak aurkezteko epea?

30 egun natural, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Nola adjudikatuko dira aparkalekuak?

1 Dokumentazioa aztertzea

Kontratazio Mahaiak aurkeztutako agiriak egiaztatuko ditu. Agiriren bat falta bada edo daturen bat argitu behar bada, hiru egun baliodun emango dira akatsak zuzentzeko.

2 Eskaintza ekonomikoak irekitzea

Jendaurreko ekitaldi batean irekiko dira. Data aldez aurretik jakinaraziko zaie parte-hartzaileei, posta elektronikoz.

3 Eskaintzak baloratzea

Eskaintza ekonomikoa izango da balorazio-irizpide bakarra (% 100). Kontratazio Mahaiak 100 puntu emango dizkio ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari, eta gainerakoak baldintza-agirietako formularen arabera baloratuko ditu.

4 Berdinketak ebaztea

Lehentasuna izango dute Arrigorriagan garaje-plazarik jabetzan ez duten bizikidetza-unitateetako kideek. Berdinketak jarraitzen badu, jendaurreko zozketa egingo da.

5 Aparkaleku zehatzak adjudikatzea

Adjudikaziodunak zehaztu ondoren, zozketa egingo da bakoitzari aparkaleku zehatz bat adjudikatzeko, jatorrizko dokumentuan adierazitakoaren arabera.

Noiz eta zelan ordaindu behar da?

Adjudikaziodunek **20 egun balioduneko epea** izango dute ordaintzeko, adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.
Banku-transferentzia kontu honetara egin behar da:
KUTXABANK
ES58 2095 4408 5320 2500 0076

Kontratua formalizatzea

Ordaindu ondoren, salerosketa-kontratua sinatuko da. Nahi izanez gero, notarioaren aurrean eskritura publiko bidez formalizatu ahal izango da. Ondoren, dagokion Erregistroan inskribatuko da. Adjudikaziodunak dagozkion zergak eta gainerako zerga-gastuak ordaindu beharko ditu.

Aparkalekuak bisitatu daitezke?

Bai. Udalak instalazioak ezagutzeko bisitak antolatuko ditu **abenduaren 1ean 15:00etan eta abenduaren 4ean 9:30etan.**
Aurretik HAZen izena eman behar da.
Liburuxka hau informazioa emateko baino ez da. Desadostasunik izanez gero, baldintza-agirietan eta deialdi ofizialean ezarritakoa nagusituko da.

28 PLAZAS DE APARCAMIENTO

Plaza de Santa Isabel



Procedimiento para adquirir el derecho de superficie

El Ayuntamiento deArrigorriaga ofrece la posibilidad de adquirir el

derecho de superficie de 28 plazas de aparcamiento situadas en la plaza de Santa Isabel, durante 40 años desde la formalización de su cesión.

¿Quién puede participar?

Cualquier personamayorde edad,empadronada en Arrigorriaga y al corriente de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

Precio y garantía

11.500 € - 13.000€
Más IVA del 21 %.
Garantía provisional: 300 €.

La garantía se devolverá después de la adjudicación, excepto si se renuncia a adquirir el derecho de superficie de la plaza adjudicada.

Información importante

- Solo sepodrá presentarunaoferta por persona.
- Las plazas no están sometidas a ningún régimen de protección pública.
- Para conocer las condiciones completas, consulte los pliegos administrativos.

¿Qué documentación hay que presentar?

La documentación deberá entregarse en un sobre cerrado que contenga otros dos sobres:

1 Sobre: solicitud

Debe incluir:
- Solicitud cumplimentada (anexo V).
- Copia del DNI o documento equivalente.
- Declaración responsable (anexo IV).
- Dirección de correo electrónico y teléfono de contacto (anexo V).
- Número de cuenta bancaria para la devolución de la garantía provisional (anexo V).
- Justificante de haber depositado los 300 € de garantía.

2 Sobre: oferta económica

Debe incluir:
- Propuesta económica firmada (anexo VI).
- En su caso, declaración responsable de no disponer de una plaza de garaje en propiedad en el municipio, conforme a las condiciones del anexo VII.

Importante: Los sobres deberán estar cerrados y la documentación tendrá que estar numerada, hoja por hoja, indicando el número de cada una y el total de hojas presentadas.
El sobre exterior deberá llevar la inscripción indicada en los pliegos administrativos.

¿Dónde se puede presentar la documentación?

La documentación podrá presentarse por cualquiera de estas vías:

1 Presencialmente, en los Servicios de Atención Ciudadana (SAC)

- Abusu: calle Olatxu, 4.
- Casco urbano: Urgoiti pasealekua, 57.

2 En otros registros oficiales

En los previstos en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de acuerdo con las condiciones establecidas en los pliegos.
En este caso, deberá comunicarse la presentación al Ayuntamiento dentro del plazo establecido, mediante una comunicación dirigida al propio Ayuntamiento o al correo electrónico:
kontratazioa@arrigorriaga.eus
La falta de esta comunicación impedirá la admisión de la oferta.
Tampoco se admitirán las proposiciones que no se hayan recibido en los diez días naturales posteriores a la finalización del plazo de presentación.

3 A través de la sede electrónica municipal

https://arrigorriaga.egoitzaelektronikoa.eus/
Nombre del trámite: **Presentación documentación concurso parcelas Santa Isabel**

4 A través de la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi

https://www.contratacion.euskadi.eus/inicio/

¿Cuál es el plazo para presentar las ofertas?

El plazo será de **30 días naturales**, contados a partir de la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia.

¿Cómo se adjudicarán las plazas?

El procedimiento seguirá estos pasos:

1 Revisión de la documentación

La Mesa de Contratación comprobará la documentación presentada. Si falta algún documento o es necesario aclarar algún dato, se concederán tres días hábiles para subsanar las deficiencias.

2 Apertura de las ofertas económicas

Las ofertas se abrirán en un acto público. La fecha se comunicará previamente por correo electrónico a las personas participantes.

3 Valoración de las ofertas

La oferta económica será el único criterio de valoración, con una ponderación del 100 %.
La Mesa de Contratación asignará 100 puntos a la oferta económicamente más ventajosa y valorará las restantes conforme a la fórmula establecida en los pliegos.

4 Resolución de empates

En caso de empate, tendrán preferencia las personas pertenecientes a unidades de convivencia que no dispongan de ninguna plaza de garaje en propiedad en Arrigorriaga.
Si persiste el empate, se celebrará un sorteo público.

5 Asignación de las plazas

Una vez determinadas las personas adjudicatarias, se celebrará un sorteo para asignar las plazas concretas, según lo indicado en el documento original.

¿Cuándo y cómo se realiza el pago?

Las personas adjudicatarias deberán abonar el importe correspondiente en un plazo de **20 días hábiles**, contados a partir del día siguiente al de la notificación de la adjudicación.
El pago se realizará por transferencia bancaria a la siguiente cuenta bancaria:
ES58 2095 4408 5320 2500 0076
Entidad: **KUTXABANK**

Formalización del contrato

Una vez realizado el pago, se firmará el contrato de compraventa. Si se desea, también podrá formalizarse ante notario mediante escritura pública. Después, se inscribirá en el Registro correspondiente.
La persona adjudicataria deberá pagar los impuestos y demás gastos tributarios que correspondan.

¿Se pueden visitar las plazas?

Sí. El Ayuntamiento organizará visitas para conocer las instalaciones el **1 de diciembre a las 15:00 horas y el 4 de diciembre, a las 9:30 horas**. Será necesario inscribirse previamente en los Servicios de Atención Ciudadana (SAC).
Este folleto tiene carácter meramente informativo. En caso de discrepancia, prevalecerá lo establecido en los pliegos y en la convocatoria oficial.